


noaua

**Milaka lagunek osatu
zuten babes hesia**

**Asteburu honetan,
San Joan jaiak**

**Udazkenean egingo da
erraustegiaren
inguruko galdeketa**



Abendukoak, ekainean

Ondo pasa Santixabeletan!

Otar-Goxo

E l i k a g a i a k



Santixabel festak ospatzeko **produktu goxoenak!**

- harategia ·urdaitegia ·frutak
- barazkiak ·kontserbak ·berezitasunak

Zubiaurrenea, nº2 • ☎ 943 36 55 81 • Usurbil

Ondo pasa jaietan!

Keep the wild in you

Beherapenak **-%30**
(ekainaren 27tik aurrera)

PAUMA

NAGUSIA 10, USURBIL

LIZARDI LIBRYBENDA



Ondo pasa jaietan!

·IKASTURTE BERRIRAKO LIBURUAK SALGAI


Oporretarako koadernoak, testu liburuak, eskolako materiala...

Etxebeste kalea, 1
☎ 943 361 115

BIDAIA TALDEAN


Irteera Lasarte-Oriatik

ISLANDIA



aurora borealak
·ABENDUAREN 3TIK 8RA·

Erreserbak eta informazioa bulegoan

 **NOA BIDAIAK**
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea, 10
20160 Lasarte Oria, Gipuzkoa
T. 943 373 613
info@noaabidaiak.com
www.noaabidaiak.com

Albiste iruditzen

Udalaren eta Elhuyarren lankidetzaren hitzarmena

Baiak, bai Usurbilgo Udala eta Elhuyar Fundazioa elkarlanean arituko dira euskararen normalkuntzaren bidean, baita zientziaren eta teknologia gizarteratzearen alde ere. Horretarako sinatu zuten lankidetzaren hitzarmena bi erakundeetako ordezkariak, aurreko astean Potxoenean; Xabier Arregi alkatetza Usurbilgo Udalaren izenean, eta Txema Pitarke de la Torre Elhuyar Fundazioaren lehendakaria. Biek gozatu dute erdietsitako akordioa, eta bi aldeek arteko hartueman onaren adierazgarri dugu, elkarlanean segitzeko hartu duten konpromisoa.

Hitzarmen honen baitan hain zuzen, "Elhuyarrek urteko plan bat osatu behar du eta bertan udalarekin zenbait lankidetzaren zehaztutako dira, izan itzulpen-gintzan, aholkularitzan edo bestelako zerbitzuen bidez. Usurbilgo Udalak 10.000 euroko dirulaguntza eskainiko



Elkarlanean arituko dira euskararen normalkuntzaren bidean, zientzian eta teknologia gizarteratzearen aldeko lanean.

dio. Usurbilgo Udalak Usurbilen egotzita duen Elhuyar Fundazioak egiten duen lana aitortzen du, eta ahal den neurrian gizarteratzea helburu duten jar-

duerak lagundu ahal izateko begi onez ikusten du Elhuyar proiektua lagundu ahal izateko hitzarmen hau sinatzea".

Laburrean

Odol ematea, Santixabel jaien biharamunean

Herriko festen osteko astelehenean egokituko da, bi hilean behin Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak egin ohi duen deialdia; odola ematekoa alegia. Uztailaren 4an, 18:00-20:30 artean anbulatorioan.

Maiatzean, 313 langabetu Usurbilen

Behera egin du langabezia tasak. Estatuko Enplegu Zerbitzuak kaleratu berri dituen maiatzeko datuen arabera, guztira 313 langabetu zeuden maiatzean, apirillean baino 6 lagun gutxiago.

Jai egitarauaren banaketa, asteburu honetan zehar

Intza Salsamendik diseinaturiko jai egitaraua, asteburu honen bueltan banatuko du Usurbilgo Udalak. Santixabelak iragarriko dituen euskarriak zer nolako itxura duen ezagutzear gara beraz.

noqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzio@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietia, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Arana, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Imanol Ubeda

Labanak zorrozten

Hauteskunde girorik gabeko garaiak ere izan dira, ez pentsa. Jada ahaztuta dugun arren. Azkenaldian, desfile berbera ikusten ari gara behin eta berriro. Gure arreta piztearren, zirtolari itxurak egiten hasi dira orain, baina beren txistek ez dira hain onak. Zirku honetako tximuak ikusiegiak daude, eta pailazoen jada ez digute grazia handirik egiten.

Baina hau da dagoena: abenduan elkar asmatu ez

zuten berberak dira, ekaineko azterketara aurkeztu direnak. Bozka ematera deituak izan garenak ere, orduko berberak gara. Eta horretan ere, nazkatuaren plantak egiten trebeak garen arren, ez dakit horretan ere gauzak hainbeste aldatuko direnik.

Oso txarra naiz kinielak egiten, baina uste dut biharamunean, ekainaren 27an, gauzak ez direla hain diferente izango. Antzeko egoera errepikatuko dela.

Horrela daude gauzak.

Eta ez pentsa bucle hau berehalakoan amaituko denik. Eusko Legebiltzarra berritzea tokatuko da uda ondorenean. Baina hori beste upel bateko sagardoa izango da.

Lasai. Ez naiz hain urruti joango. Udako oporrez gozatu gabe oraindik, uda ondorenaz hitz egitea gauza tristea baita.

Ekainekoari helduko diot. Esan beharrik ez da: hautagaiak berberak dira. Joko-zelaia ere, berbera. Emaitzak ere, ez oso diferente (ikusteke dagoen arren).

Honek guztiak abendukoaren

traza berbera hartu badu ere, eta ekainaren 26ko gauerdian batzuk eta besteek garaile plantak egin arren, honakoan "ekaitz perfektua" nonbaitetik lehertu egingo dela iruditzen zait. Eta enbatak berarekin eramango duela orain hain irribarretsu agertzen den hautagai horietako bat. Horrelako kasuetan, laban zorrotzenak ez dira aurkarienak izaten. Etxekoenak baizik.

Nago uztaileko adarkadak ez direla soilik Iruñeko San Ferminetan emango.

Imanol Ubeda | Idoia Torregarai | Maialen Unanue | Ilazki Gaintza | Luis Aranalde | Luken Arkarazo | Aritz Gorriti

Joseba Larratxeren komikia



Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOUAk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: uztailek 1. Idatzia ekartzeko azken eguna: ekainak 27.

Erraustegiaz galdetuko zaie usurbildarrei

Espainiako Gobernuak Udalari debekaturiko herri galdeketaekin zer egin erabakitzeko, Erraustegia Erabakia herri plataformak deitutako batzarra egin zen aurreko larunbatean Udarregi Ikastolan. Bileran parte hartu zutenek, baiezkoa eman zuten, aho batez onartu zuten galdeketa antolatzea.

Erabaki gehiago ere hartu zituzten. Erraustegia Erabakia herri plataformatik NOAUA!ri berri eman diotenez, galdeketa egunak finkatu dituzte; hiru egunez izango da, irailaren 30ean, urriaren 1ean eta 2an. Usurbilen eta Zubietan egingo da galdeketa. Eta galdetuko dena, 1.185 herritarrek eskatu zutena; "Erraustegia egitea nahi al duzu?". 16 urtetik gorako herritarrek parte hartu ahalko dute.

Herritarren agerraldi jendetsua

Batzarrean, galdeketa anto-



Hiru egunez luzatuko da herri galdeketa partehartzeko aukera: irailaren 30ean, urriaren 1ean eta urriaren 2an.

ERRAUSTEGIA ERABAKIA

Uztailaren 2an agerraldia iragarri dute. Galdeketa antolatzeko ardura herritarrek hartuko dutenez, herritarren agerraldia jendetsua izatea nahi dute

latzeko lan talde ezberdinak osatu zituzten. Hartu duten erabakiaren, hau da galde-

ketaren berri agerraldi batez emango dute jaietan. Uztailaren 2n, usurbildarren jai egun handian, Santixabel Egunez. Galdeketa antolatzeko ardura herritarrek hartuko dutenez, herritarren agerraldi jendetsua izatea nahi dute uztailaren 2koa. Gonbita luzatua dago beraz.

Datorren astekarian hitzordu honi buruzko zehaztasun gehiagoren berri emango dizuegu.

Igande honetan, bozketa eguna

Bozketa eguna izango dugu ekainaren 26a. Espainiako Gorteetako hauteskundeak deitu dira. Gogoan izan, goizeko 09:00etan hasi eta iluntzeko 20:00ak arte zabalduko dira hauteslekuak, herriko txoko desberdinetan. 3 mahai Udarregi Ikastolan, 2 mahai Kalezarko Haur Eskolan, eta hautesleku bana kokatuko dute, Zubietako Lanbide Eskolan, Santuena Elkartearen eta Aginagako Ikastetxean. 20:00etan hauteslekuak itxita hasiko da bozken zenbaketa eta gau partean ezagutuko ditugu emaitzak. Emaitzen berri jaso ahala, noaua.eus atarian eta sare sozialen bidez zabaltzen joango gara. Gogoan izan bi erakunde eraberritzeko bozka dezakezuela; Madrilgo Diputatuen Kongresurako eta Senaturako.

Kanpaina, azkenetan

Aurretik, ostiral honetan amaituko da kanpaina. Usurbilgo EHBilduk, Kalezarren borobilduko du azken asteotan egin dituen ekimenak. Ostiral arratsaldeko 19:00etatik aurrera, eskuorriak banatzen airtuko dira San Joan jaietan.

Erria eta inguruak biziberritzeko plana

Oria ibaiaren Paisaiarako Ekintza Plana herritar eta eragileen ekarpenez osatzeko, parte hartze prozesuaren bigarren fasea martxan du Udalak. Herritar ororen txanda da orain. Gai honi buruzko inkesta bete dezakezue. Orriak, Sutegi udal liburutegian, Potxoenean, Oiaro Kiroldegian, ambulatorioan eta udaletxean eskura ditzakezue.

Udalaren web orrian ere osatu daiteke: usurbil.eus

Ika-mika

Badatoz San Praixku jaiak 2016

Kaixo denoi! Urtero bezala gazteok hasi gara herriko jaiak antolatzen. Eskuz esku lan egiteko prest eta gogo handiz! Aurten ere eta guztion artean egingo dako jaiak izan daitezen, herritar guztiok gonbidatuta zaudezte parte hartzerantz zein iritziz eta

proposamenak ematera. Ongi etorriak izango zarete!

Pauso txikiak emanez, festa giroaren aitzakian herria batzera bultzatu nahi dugu eta horretarako beharrezkoa da programa anitz bat osatzea. Elkarrekin gozatzeko!

Beraz, ekainaren 29an

20:00etan frontoi txikian elkartuko gara.

Herriak eginiko jaiak, herriarenak direnez... Gora San Praixkuak! Gora Agiña ta Agiñatarrak! Agiñako gaztiak!

San Praixku jaietako batzordea.

Garai gozoa bizi du Dantza Taldeak

Jaiak hasteko ohorea izango du Orbeldi Dantza Taldeak astebete barru. Une ezinhobean heldu zaie Jai Bartzordeak hartutako erabakia. Amaitu berri duten ikasturtearen balantze ezin baikorragoa egin diote, NOAUA!ri eskaini dioten elkarriketan.

Txupinazoa jaurtitzeko hautatuak izan zarete. Albisteak une gozoan harrapatu du taldea.

Orbeldi Dantza Taldea: Taldea une honetan azken aldiko une osasuntsuenean dago, jende asko baitago. Neskak eta mutilak, denetarik dugu, talde berri asko. Jende asko ari da animatzen dantzara eta oso gustura gaude. Une honetan gainera, balorea ematen dioguna da baita, adin oso ezberdinetako jendea biltzen dugula. Txikienak 4-5 urte ditu eta helduenak 72 urte inguru. Jende desberdinarengana heltzen garela ikusten dugu eta alde horretatik oso gustura gaude.

Eta dantzari berriak batzen ari dira taldera.

Gonbidatuak daude denak gainera. Ateak zabalik ditugu.

Ofizialki ikasturtea bukatutzat eman duzue?

Ikastaroak bukatu ditugu. Orain udako urteroko erakustaldiak datoz; Usurbilgo, Kalezarko eta Urdaiegako jaietakoak. Urtean zehar egindakoa erakustera goaz orain.

Plazan ikusiko ditugu beraz, belaunaldi ezberdinetako dantzariak.

Asmoa hala da. Orain arte auzoetako ekitaldiak umeen taldeenak izan dira, taldeok bakarrik zeudelako. Aurrerantzean ere nahiko genuke ditugun taldeen isla txiki bat izatea ekitaldiok. Talde guztiak parte hartzea nahi genuke, bakoitzak dantza saio bana eginez.



2016-17 ikasturterako izen ematea irailean bideratuko du Orbeldi Dantza Taldeak.

ORBELDI DANTZA TALDEA

“Ikastaroak bukatu ditugu. Urtean zehar egindakoa erakustera goaz orain Usurbilen, Kalezarren eta Urdaiegako jaietan”

Hutsunea agian, mutiletan izango duzue.

Mutiletan orokorrean adin guztietan. Egia da gutxiago egon diren urteak egon dira. Halere egun, gutxi gorabehera, 140-145 kide ditugu eta 20 bat dira mutilak. Animatu daitezela dantzara.

Zer balantze egin dezakezue ikasturte honetaz?

Balantze positiboa. Batetik, ikasturtean zehar egindako entseguak ditugu, udako ekintzak eta Usurbilen indar handia hartu eta herria babesten ari den Dantza Eguna. Jende asko joaten da ikustera, erromerian ere jende askok parte hartzen du. Azken urtean gainera, irteerak egiten ari gara; Urdiñarbera joan ginen, umeekin Lasarteko Dantzari Txiki Egunean parte hartu genuen,... Aurrera begira, halako irteera

gehiago egiteko asmoa bada. Eta herrian ekimen gehiago ere egin nahi ditugu. Ikusi dugu Dantza Taldeak ez zuela zentzurik udan bi emanaldi eskaintzeko bakarrik. Filosofia horretatik sortu zen Dantza Eguneko ideia. Baina horrez gain, urtean zehar beste ekintza puntual batzuk egitea ere garrantzitsua dela iruditzen zaigu.

Izena ere jarri diozue taldeari. Zergatik Orbeldi?

Dantza taldeak zuen dimentsioa ikusita, talde bezala erregistratzeko erabakia hartu genuen. Izen ofizial bat behar genuen. Herriko toponimian bila hasi eta botazioz gehiena gustatu zena izan zen.

Izen ematea, irailean

2016-17 ikasturterako izen ematea irailean bideratuko du Orbeldi Dantza Taldeak. Herriar oro “apuntatzera animatzen dugu. Talde desberdinak daude; koreografiak egiteko, dantza tradizionalen taldea, erromeriakoa...”. Eta begirale talde bat pazientzia eta eskuzabaltasun handienarekin, dantzok irakasteko prest.

Txupinazoa eta gero, dantza saioa

Orbeldi Dantza Taldeak urtero jaietako igandean eskaintzen duen emanaldia, uztailearen 3an izango dela iragarri dizuegu NOAUA!ren gehigarrian. Baina azken orduan aldaketa bat egon da; azkenean, txupinazoko ekitaldiaren ostean izango da saioa, ekainaren 30ean 20:00etan frontoian. Orduz aldatu dituzte baita beste bi ekitaldi ere; uztailearen 1eko Umeen Eguneko jolas parkea 10:00etan zabalduko dute, baina 14:00ak arte luzatu ordez, 13:30etan emango zaio amaiera. Bestalde, Santixabel Egunean igandera egunez aldatu duten Usurbilgo Pilotako Txapelketako finalak, uztailearen 3rako 17:00etan zeuden iragarriak. Baina ordu erdi aurreratuko dira azkenean. 16:30etan hasiko dira. Eta uztailearen 1eko kontzertu gauan, lehenbizi Anje Duhalde eta bere taldea entzuteko aukera izango dugu. Gero, Niko Etxart eta Hapa Hapa taldea.

Ostegun honetan, Bertsopaper Lehiaketako sariketa

Iaz bezala, jaietako bertso saiotik aparte, musikariekin eta lagun arte giro ederrean ospatuko da 40. Bertsopaper Lehiaketako sariketa. Ostegun honetan Sutegin, 19:00etan. Egun horretan ezagutuko ditugu nortzuk diren sarituak. Iazko txapelkunak, Imanol Zarautzek ere bertso sorta bat aurkeztu du aurtengo ediziora. Usurbildarrik frontoitik Sutegira egin den sariketako formatu aldaketa hoberako izan dela dio.

Aurtengo txapelketara aurkeztu zara?

Imanol Zarautz: Ez nuen asmorik. Normalean ideia bururatu-takoan idazten ditut bertsoak, baina aurten ez nuen ideia argirik. Azkeneko unean antolatzaileek gonbidatu naute. Formatu aldaketa honekin animatuta, egun batean bonbilla piztu, hari bat hartu eta hari segita bertso sorta osatu dut.

Iaz errioiari buruz idatzi eta irabazi zenuen txapelketa.

Usurbil nahiko lotua dago errioiarekin. Guri zortez edo tamalez, errioiak dena eman eta dena kendu digu. Goierrri aldean dezente ibiltzen naiz. Beti N1 errepidean gora eta behera, beti zeharka errioiari begira. Gidari lanak egitea tokatu zitzaidan irratirik ez zuen kamioi batean. Kamioi zahar batean irratirik gabe orduak luze joaten dira eta hortxe bururatu zitzaidan. Lehen bururatu ahala orri batean apuntatzen nituen, eta orain mugikorrean grabatu, etxera etorri eta paperera pasatzerakoan grabatutakoari buelta ematen diot. Lanak aurkezteko epea ixtear dela, ezin osatu bertso sorta.

Zailena bertso sorta behin betiko borobiltzea izango da ezta?

Ez da bukaera ematen. Niri nor-



Iazko txapelketan, Imanol Zarautz nagusitu zen.

IMANOL ZARAUTZ

“Frontoiko sariketan, puntako bertsolarien saioaren ostean izaten zen sariketa.

Hoztu egiten zen saioa. Gainera norberak ausardia behar zuen oholtza gainera igo eta jendaurrean abesteko. Egin den aldaketa, onerako izan da. Formatu aldaketarekin bere txokoa eman zaio ekitaldiari”

malean beti ixtea kostatzen zait. Beti dago hari muturren bati tira egiteko aukera. Niretzat ez da sorta bat inoiz ixten.

Iaz txapelketa irabazi zenuen. Espero al zenuen?

Ez zitzaidan iruditu bertso sorta borobildu nuenik bukaera aldera, baina gustura geratu nintzen. Laugarren aldiz irabazi nuen iaz. Normalean urte bakoitietan irabazi izan dut. Aurten urte pareka tokatzen da... Bertso eskolatik hasi ginen parte hartzen. Geronek parte hartu eta antolatzen genuen, beste batzuk epaimahaikide ziren. Zortzi

bat aldiz parte hartuko nuen. Lau txapela etxera ekarri ditugu etxera.

Frontoitik Sutegirako formatu aldaketa lehen pertsonan bizi izan duzu. Aldaketa hoberako izan da?

Bai. Frontoiko sariketan, puntako bertsolarien saioaren ostean izaten zen sariketa. Hoztu egiten zen saioa. Gainera norberak ausardia behar zuen oholtza gainera igo eta jendaurrean abesteko. Egin den aldaketa, onerako izan da. Formatu aldaketarekin bere txokoa eman zaio ekitaldiari.

Ostegunean zer aurkituko dugu Sutegin?

Ordu erdi pasatxoko saio herrikoiki eta polita, leku goxo batean, lagunarte giroan, musikariekin. Animatu eta etor dadila nahi duenak. Politia litzateke formatu hau mantentzea. Hauxe da bertsopaper lehiaketako sariketarako behar duen tokia. Jendea animatu nahiko nuke baita bertsoak idaztera. Berdin dio zerri buruz, ahalik eta kuriosoan idatzi eta entregatu ditzala txapelketara.

Pintura Lehiaketa

Kirola denontzat, gai hauxe hautatu da Santixabeletako 14. Pintura Lehiaketarako. Txapelketa, haur eta gaztetxoek gaia nola bizi duten ikusi eta hausnartzeko aukera aparta izango da, sortuko dituzten marrazkien bidez.

■ Eguna: ekainak 30, osteguna.

■ Ordua: 10:30.

■ Tokia: Usurbilgo frontoia.

■ Nori zuzendua: 2-16 urte.

■ Sari banaketa: ekainaren 30ean 13:00ean Usurbilgo frontoian.

■ Sariak: pintura materiala eta diploma txapeldunentzat. Parte hartzeagatik detailetxoa.

■ Sari kopurua: 11 sari guztira. Sari bat 2-4 urte artekoen artean; 5-13 urte artekoentzat urteko sari bana, eta beste sari bat 14-16 urte artekoentzat.

■ Oharrak: Lehiaketarako materiala bertan utziko da. “Hala ere, komeni da orriaren azpialdean jartzeko euskarriren bat ekartzea (karpeta bat edo liburua...). Nahi izanez gero, margotzeko materiala etxetik ekar daiteke”.

-Epaimahaia ikusten badu aurkeztutako lanek behar beste kalitaterik ez dutela, sariak eman gabe gera litezke.

-Haurren marrazkiak frontoian jarriko dituzte ikusgai txapelketa amaitu artean. Gero, Sute-giko erakustaretora eramango dituzte.

Pala saio inklusiboa

Gipuzkoako gurgildun aulkiko pala txapelketaren seigarren edizioa amaitu berri den honetan, azken urteotan egin duten moduan, jaiak girotzen hasteko pala modalitate honetako erakustaldiaz gozatzeko aukera izango dugu igandean, 17:00etan hasita frontoian. Gizonezkoen eta emakumezkoen pala txapelketen finalekin batera, kirol egokituko saio ikusgarria izango dugu ekainaren 26an. “Animatu eta etorri ikustera”, luzatu dute gonbita antolatzaileek.

Euskara ikastea, doakoa Usurbilen

Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko, geure hizkuntza doan ikasi ahal izateko urrats garrantzitsua eman du Usurbilgo Udalak. 2015-16 ikasturtean euskara ikasten aritu direnek, euskaltegian matrikulatzeko ordaindutako diruaren %100a bueltan jaso dezakete (gehienez 500 euro), eskaerak egiteko epea zabaltzear den udal diru laguntzetara aurkeztuz gero.

“Aipatutako portzentaia gutxitu egin daitezke aurkeztutako eskaeren arabera. Hau da, diru-laguntzarako dagoen dirua baino eskaera handiagoa bada, proportzionaltasunaren irizpidea aplikatuko da”, ohartarazi dute Udaletik. Aurreko urteetan %60-80 arteko laguntza ematen zuen Udalak. Argi denez, inbertsioa handitu du oraingoan. Iazko udal aurrekontuetan, 16.000 euro bideratu ziren laguntzotara; aurtengorako, 24.000 euroko partida gorde du Udalak.

2015eko irailetik 2016ko abuztuaren 31ra eginiko ikastaroak babestuko ditu diruz; ikastaroak, barnetegiak, autoikaskuntza... “Usurbilgo Uda-



Udal diru laguntzok jasotzeko Usurbilen erroldatua egotea ezinbestekoa izango da; eta gutxienez, ikastaro osoan zehar, %80ko asistentzia ziurtatzea.

INBERTSIO HANDIAGOA

Iazko udal aurrekontuetan, 16.000 euro bideratu ziren laguntzotara; aurtengorako, 24.000 euroko partida gorde du Udalak

lak oso garrantzitsutzat irizten dio helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragiteari”.

Baldintzak

Udal diru laguntzok jasotzeko Usurbilen erroldatua egotea ezinbestekoa izango da; gutxienez, ikastaro osoan zehar, %80ko asistentzia izatea

(autoikaskuntzaren kasuan aprobetxamendua ziurtatzea); euskaltegiak egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharreko gutxienezko aprobetxamendua gainditzea. Eta orain arte, diru-laguntza deialdi honetan finkatu edo zehaztu gabe zegoen baldintza berri bat; 16 urte izatea gutxienez.

Eskaerak udal erregistroan aurkeztu beharko dira, ekainaren 27tik uztailaren 8ra, bi egunok barne. Aurkeztu beharko den dokumentazioa; diru-laguntza eskari normalizatua; eskatzailearen NANaren fotokopia; matrikularen ordainagiria; %80ko asistentziaren edo autoikaskuntzaren aprobetxamenduen egiaztagiria.

Udan ere euskalduntzeko aukera

Ekainaren 30era arte eman dezakezue izena, AEK-ren udako eskaintzan. Ikastaro trinkoak antolatu dituzte, Etumeta euskaltegian. “Euskaltegira hurbiltzerik ez edota opor lekutik aritu nahi dutenentzat, on-line ikasteko aukera ere izango da AEKn”, ohartarazi dute. Eta Usurbil-


dik kanpo, barnetegiak antolatu dituzte Euskal Herriko txoko ezberdinetan; euskalduntze eta familia barnetegiak, barnetegi ibiltariak, Xiberera ikasteko barnetegiak... Honez gain, euskara ahotan hartzeko Mintzalagun egitasmoak ere ez du atsedunik. Urte osoan zehar eman dezake-

zue izena, bai euskara ikasten ari zaretenok, baita bidelagun edo euskaldun zaharrek.

Informazio gehiagorako:
usurbil@eek.es
607 609 379
munterri.blogspot.com.es
aek.es

NOAUA!ko bazkidetzak saria dakar


NOAUA!ko bazkide izateak oparia dakar. Proiektu hau laguntzen aritzen zaretenontzako esker onez, Bazkideen Txokotik merezitako opariak zozketatzen ari gara. Azkena, Iñaki Uli Labaka herritarrari egokitu zaio. 2 laguntzako talasoterapia zirkuitua Orioko Aisia hotelean. Zorionak!



Orioko Aisia hotelean talasoterapia zirkuitua egiteko aukera izango du.

Artzabalgo eta Eguneko Zentrokoen lanak ikusgai Sutegin

Ikasturte amaierarekin batera, urtean zehar landutakoa plazaratzeko unea da herriko taldeentzat. Aurreko asteburuan, Artzabalgo pintura ikastarokoentzako sortze lanak eta Eguneko Zentroko kideek eginiko eskulanak ezagutzeko aukera izan genuen.



Artzabal nahiz Eguneko Zentroko ikasleen lanak egon dira Sutegin ikusgai.

Lau egunez, jai-giroa nagusi izango da Kalezarren

Ekainak 23 osteguna

San Juan Bezpera

15:00etan: San Juan eskearen irteera.

22:00etan: San Juan sua.

Ondoren: Eskearen Jarraipena.

Ekainak 24 ostirala

San Juan Eguna

11:30etan: Meza nagusia.

Ondoren: Toka.

13:00etan: "Gorritiren Showa".

17:00etan: Buruhandiak.

19:00etan: Soka Dantza.

Ondoren: Sardina eta sagardo dastaketa "Saizar" Sagardotegiaren eskutik.

23:30etan: Kontzertuak: Floxbin, Eratu, Erokomeri taldeenkin.



San Juan bezperan hasiko dira festak. Sua pizteko ohitura berrituko dute, ekainaren 23an gaueko 22:00etan.

Ekainak 25 larunbata

Oilasko Biltzaileen Eguna

09:00etan: Oilasko biltzaile txikien irteera.

14:00etan: Oilasko biltzaileen bazkaria (tiketak Kaffa kafetegiaren eros daitezke ekainaren 15etik 21era).

16:00etan: Musa (izen-ematea 15:30etan itxiko da).

17:00etan: Herriko dantzariak.

Ondoren: buruhandiak.

Jarraian: Auzotarren arteko jokoak.

00:00etan: Dj Seymar.

Ekainak 26 igandea

Umeen Eguna

10:00etan: XIV. Ume Krosa.

11:30etan: Jolasak.

16:30etan: Tailerrak.

18:00etan: Txokolatada.

Ondoren: buruhandiak.

19:00etan: Dj Burundarekin dantzaldia.

Oharra: Jai Batzordea ez da jaietan gerta daitezkeen istripu edo ezbeharrez arduratuko.

IRATXO TABERNA

Ondo pasa jaietan!

FESTETAN MUSIKA ETA GIRO ONA IRATXONI!
 EGUNERO: arratsaldeko 19:00etan

- EKAINAK 30, OSTEGUNA: PJ Kahuna & Farba Grajan.
- UZTAILAK 1, OSTIRALA Lemoed Tourist.
- UZTAILAK 2, LARUNBATA DinBi DanBa.
- ETA FESTAK BUKATZEKO... Musik Sesioa.

Nahi duenak instrumentuak jor parte hartu dezake Musik Sesioa Show -an.

·pintxoak ·pintxo bereziak ·razioak ·ogitartekoak
·plater konbinatuak ·urdaiazpiko paletila labanez moztuta

Gurean lekuak aukeratu egunak
Borda Berri 5, USURBIL

BAZKIDEEN TXOKOA

ZOKETA
ekainaren
23AN

ASTE HONETAN...NOAUAKO
bazkide guztien artean
zozketatuko DUGUN SARIA...

+

2 LAGUNENTZAKO
ZIRKUITU TERMALA ORIOKO AISIAN

noaua! euskararen aterpe

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta
 zozketa hauetan parte hartzeko aukera
 943 360 321 / elkarte@noaua.eus

‘Altza Porru’ komiki liburua, ‘Bizi baratzea’ liburuaren ondokoa

Jakoba Errekondoren ‘Bizi baratzea’ (Argia) liburuak ekarri du ‘Bizi baratzea, Altza porru’ (Argia) izeneko komiki liburua. Aurreko astean, Hernaniko Karabeleko ekonekazaritza etxalde esperimentalean egin zen aurkezpen ekitaldia, eta Idoia Torregaraik, Joseba Larratzek eta Jakoba Errekondok berak hartu zuten parte, besteak beste. Liburua dagoeneko salgai da.

Jakoba Errekondok baratzearen sekretuak deskubritu zizkigun iaz ‘Bizi baratzea’ (Argia) liburu arrakastatsuan. “Lantzen dugun lurrarekiko ikuskera aldarazi digu gehienoi, eta beste askori jakinmina eta grina piztu. Orain, zaleak eta irakurleak zain zeuden bigarren lana kaleratu dugu: *Bizi Baratzea, Altza Porru*”, Argiak igorritako prentsa-oharrak dioenez.



Aurkezpen ekitaldian, *Altza Porru* liburuan batu diren marrazkilari batzuk hartu zuten parte. Ainara Azpiazu, Joseba Larratxe, Asisko, Antton Olariaga, “Mattin” Martiarena eta Zaldieroak, hain zuzen.

Umorea, osagai nagusia

Liburu berriak osagai nagusi hau du: umorea. Euskal Herrian aski ezagunak diren zortzi marrazkilari elkartu eta lanean jarri dituzte, Jakoba Errekondorekin eman eta hartuan: Antton Olariaga, Asisko, Unai Iturriaga, Ainara Azpiazu, “Mattin” Martiarena, Joseba Larratxe, Unai Gaztelumendi eta Zaldieroa. Irudi eta komikien bidez, baratzea mundu askotarako atari izan daitekeela erakutsiz.

Liburuaren atariko Maialen Lujanbiok egin du, “ohikoak dituen burutazio eta idazkera zorrotzekin”.

Idoia Torregaraik, berriz, Jakoba Errekondoren profila edo karikatura osatu zuen aurkezpen ekitaldian.



Aurkezpen ekitaldian, Idoia Torregaraik Jakoba Errekondoren profila irudikatu zuen hitzez. Argazkiak: Argia.

Bizia ereiten, errausketaren zero gunean

Gipuzkoa Zutik-eko kideak Zubietan izan ziren larunbatean. Heldu bezain laster errausketaren zero gunera igo eta bizia ereiten aritu ziren, hain zuzen gu guztion osasuna, eta bizia honenbestez, arriskuan jarri asmo duten eremu berean. Gero Zubietan herrian, Aiztondoko plataformakoek landutako "Lur" ikuskizunaz gozatu, 2011ko Flashmoba dantzatu eta solaserako tartea hartu zuten Zubietako frontoian.



Aurreko asteburuan, Gipuzkoa Zutik mugimenduko kideak Zubietan izan ziren.

Aurrera begirako erronkez

Erraustegiaz jardun zuten, bi zubietarrek, Erraustegiaren Aurkako Mugimenduko eta Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeko (OEIT) kideek. Bakoitzak urte luzeotan orain arte egindako lanketa azaldu zuten.

Eta aurrera begira ere jarri ziren. Erraustegiaren Aurkako

OEIT-KO MEDIKUAK
"Nazioarteko
ingurumenaren aldeko
eta erraustegiaren
aurkako mediku
taldeek duten informazioa
partekatu nahi dute"

Mugimendutik Foru Aldundiak iragarri duen Hondakinen Kudeaketa Planaren luzapenari helegiteak aurkezteko gonbita luzatu zuten.

Helegiteak martxan

"Ahal den gehienak aurkeztea beharrezkoa da" zioten. Hi-

laren 24an itxiko dute epea. Abiatzear dugun uda honetako jaietan egoteko asmoa du aipatu mugimenduak. Eta oraindik zehazteke duten arren, iraila amaierarako Erraustegiaren Aurkako Eguna antolatzekotan dira.

Hitzaldi ugari herriz herri

Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak berriz, azken hilabeteotan herriz herri eskaini duten hitzaldien zikloa maizterako amaitzea aurreikusten zuten. Baina halako saio gehiagorako antolatzeko eskariak jasotzen segitzen du OEIT-k. Honenbestez konferentzien fasea luzatu egingo dute. Bigarren lan lerro bat ere iragarri zuten; nazioarteko ingurumenaren aldeko eta erraustegiaren aurkako mediku taldeekin hartuemanak estutu eta batzuek eta besteek duten informazioa partekatu nahi dute.

Makrokartzelaren beharrik ez

Inguruko beste estatuekin alderatuta, delitu gutxien baina preso gehien dituen estatua da espainiarra. Azalpen argia du horrek; zigor kodea gogorregia da. Hala zioten, Zubietan eraiki nahi duten bezalako makrokartzelen aurka, urte luzez lanean dabilen plataformako kideek, larunbatean eskaini zuten hitzaldian.

Bestelako justizia eredu bat bultzatzeko beharra nabarmendu zuten, gizarteratzea landuta eta Zubietan proiektatzen dena baino espetze txikiagoekin. Egungo errealitate gordina plazaratu zuten; "Estatuko preso piloa" asumitzen ari dira Euskal Herriko espetzeak, eta bitartean, "hemen-goak kanpoan".



Zubietako frontoian makrokartzelen inguruan jarduteko denbora hartu zuten.

Interes asko atzean

Erraustegiaren kasuan bezala, argi denez, Zubietan eraiki asmo duten makrokartzelaren beharrik ez dela zioten. Aipatu zituzten "beste alternatibak planteatu zitezkeen, espetze gehiago eraiki gabe". Baina kasu honetan ere, interes eko-

nomikoak daude honen guztia- ren atzean. 90. hamarkadaren hasieran PSOEn Espainiako Gobernuak makroespetzeak eraikitzeko plana aurkeztu zuen. 32 zentro egitea planteatu zuten. Esan beharrik ez, enpresa mordoa dagoela egitasmoetan interesaturik.

Fase berri baten atarian

Hiru aste bete zituen Gipuzkoa Zutik-ek igandean, ekimeneko abiapuntuan, Gipuzkoa Plazan. Berriz ere tentsioa nagusitu zen, asanblada baketsua egiten ari zirela Ertzaintza haien aurka oldartu ostean. Bi lagun identifikatu eta lagun bat ere kolpatu zuten. "Ertzaintetako batek erretentutako kide bati esan dio agintariak urduri daudela Gipuzkoa Zutik-ekin", adierazi dute Gipuzkoa Zutik-etik. Hitz egiteko eta elkartzeko eskubidea urratu zutela salatu dute. Urraketa larri hau salatzeraz deitu dute. Halere, aurrera egingo dute. "Asanbladak ilusioz betetako fase berri bati ateak irekitzea erabaki du. Laster informazio gehiago emango dugu honi buruz", iragarri dute.

Milaka lagunek osatu zuten babes-hesia

Milaka lagunek parte hartu zuten, osasuna bermatu, erraustegia alboratu eta hondakinen arazoari irtenbide adostu bat eskatzeko guraso taldeak deituriko desfilean. Antolatzaileak pozik, ekimenak izan duen arrakasta ikusita. “Gaurkoa ikaragarria izan da, eskerrik asko guztioi!”, adierazi dute GuraSOSetik.

Helduak, beltzez jantzita agertu ziren, “kezkatuta gaudelako, osasuna arriskuan ikusten dugulako, gatazka eta liskar egoera bizi dugulako”. Haurrak aldiz zuriz jantzita ikusi genituen, “gure etorki-



Amaieran, GuraSOSen manifestuaren irakurketa antzetzua egin zen Donostiako Alderdi Ederrean. Argazkiak: NOAUAI, Lurdes Hueta, Ion Markel.

zuna zaretelako, itxaropena eta xalotasuna irudikatzen dituzue, eta zuengatik, hondakinen gaian gatazka eta konfrontazio egoeratik akordio eta

adostasun egoerara igarotzen ahaleginduko gara”.

69.119 haur, arrisku eremuan
Mobilizazio buruan eraman

zuten pankartak zioenez, 201 ikastetxe eta 69.119 haur daude egun, erraustegia eraiki nahi duten arrisku eremuaren baitan. GuraSOSetik ez dute halakorik onartuko. “Ziur gaudelako informazio osoa jasotzen dugunean, inork ez duela nahiko zuek arriskuan jartzetik”, adierazi dute.

Ia 13.000 atxikimendu

Igandeko mobilizazioaren ondoren ia 13.000 lagun ziren, osasuna lehenestea eta erraustegia alboratzea eskatzen zutenak. Noiznahi sina dezakezue manifestua: gurasos.org

Facebook: Gura sos

Twitter: @gurasos







¿INCINERADORA?
¿VA A SER QUE NO?

DONOSTIA /
SAN SEBASTIÁN
2016

Ongi etorrit


FIRMA SINATU
aquí el MANIFESTUA
MANIFIESTO! hemen!

Kalamen preokupados por
las consecuencias que la
incineradora de Zubiate
puede tener especialmente
en la salud de nuestros
niños.
gurasones.org

EE

Z

CASA CONSISTORIAL



Klik! batean

Oso simplea da

Luze-zabal hitz egin daiteke hondakinen kudeaketa sistemaz. Bakoitzak bere neurrira egokituko ditu bateko zein beste argudioak. Dena den, oso simplea da asuntua. Eta era berean, oso adierazgarria. Badaezpada, inork ez du bere herrian errauste-plantarik nahi. “Ongi etorri!” eta “Bienvenida!” adeitsuez saludatzen gaituen Udalak ere ez.

Argazkia: Ion Markel



EHBildu: “Herri honen aniztasuna eta aukerak erakutsiko ditugu”

NOAUA! Espainiako Gortee-tako ordezkariak aukeratu behar dira ekainaren 26ko hauteskundeetan. Zuen alderdiak ordezkariak lortzen badu, zeintzuk izango dira defendatu eta bultzatuko dituen egitasmo nagusiak?

EHBildu. Ekainaren 26ko hauteskundeak garrantzitsuak dira herri bezala ditugun errokei aurre egiteko; horrela hartzen ditugu eta hori islatu nahi izan dugu ere zerrrenden berrikuntzarekin. Aukera guztien alde lanera doan euskal enbaxada izango gara. Herri honen aniztasuna eta aukerak erakutsiko ditugu. 23 hautagai aukeratzen dira Hego Euskal Herrian Madriler joateko; aukera ditugun hemen han ordezkatzeko gaituzten hautagaiak.

Euskal herritarren interesak defendatzera goaz Madriler eta estatuko nazio zapalduen eta sektore herritarren alde lan egitera. Aukerak zabaltzera goaz, estatuan aldaketa demokratikorako aukera txikiena badago, hura bultzatzeko.

Balio bikoitza izango du gure aldeko bozkek. Alde batetik Estatuan aldaketa lortzeko aukera egonez gero hor egongo gara aldaketa hori posible egiteko. Rajoy-PP, edota oraingo estatus quo antidemokratikoa mantendu nahi duten bestelako alderdiak / operazio politikoak jokoz kanpo uzteko aukera txikiena ere balego, hor egongo gara lortzeko. Eta horrekin batera estatuan benetako aldaketa demokratikoa gauzatzeko.



Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan, Marian Beitialarrangoitia da EHBildu koalizioaren zerrendaburua Gipuzkoan.

EHBILDU

“Euskal herritarren interesak defendatzera goaz Madriler eta estatuko nazio zapalduen eta sektore herritarren alde lan egitera”

Madrilen erabakitzen diren gauza askok eragin zuzena eta sakona dute gure herrian eta gure herriaren etorkizunerako. Beraz, EH Bilduk, ezker soberanistak, presentzia indartsua izatea zeharo ga-

rrantzitsua da euskal agenda aktibatzeke, euskal herritarren agendari lehentasuna emateke.

Esparru guztietan lan egingo dugu -pentsioak, Garoña ixteko, frackinga debekatzeko, nafar legeen eta EAeko legebiltzarrak onartutako aurkako helegiteei aurre egiteko, LOMCE eta Mozal Legea bertan behera uzteko,...- euskal herritarren interesak eta lehentasunak defendatzeko. Euskal agenda hemen, EHn adostu beste alderdi eta eragileekin eta Madrilen borrokatu.

Lege atzerakoien aurkako ahotsa izango gara. LOMCeren aurrean euskal hezkuntza sistema defendatuko dugu, Mozal legearen aurrean adierazpen askatasuna, lan erreformaren aurrean gure lan harreman es-tilo propioa.

Eraldaketa sozialerako proposamenak ordea, babestu eta zabalduko ditugu. Langile pobreak sortzen dituen eredia eraldatu behar dugu, prekarietatearekin bukatu eta herritar guztiontzat bizi baldintza duinak berreskuratu.

Erabakitzeke eskubidea eta independentziaren proiektu politikoa zabalduko ditugu. Independentzia, herri bat garrelako eta sentimenduek hori eskatzen digutelako. Eta independentzia baita hobeto bizitzeko, estatu espainola gure bizitza baldintzak hobetzeko oztopo delako.

Bakegintzan eta bizikidetzan aurrera egiteko aukerak bilatuko ditugu. Presoen bozgorailua ere izango gara.

EH Bildu bermea bakarra da Euskal Herrian defendatzen dena eta Madrilen egiten dena norabide berean jartzeko, eta berdina izateko, bestelako interesengatik hemen hartutako erabakiak aldatu edo baldintzatu gabe.

Asko dugu esateko. Atzo bezala, gaur eta bihar ere defendatuko ditugunak. Batu zaitez zeu ere eta begira diezaiozun etorkizunari ilusioz eta irribarretsu, aldaketarako aukerak zabalduz!

EAJ-PNV: “Ekainaren 26an Euskadiren alde bozkatuko dugu berriro”

NOAUA! Espainiako Gortetako ordezkariak aukeratu behar dira ekainaren 26ko hauteskundeetan. Zuen alderdiak ordezkariarik lortzen badu, zeintzuk izango dira defendatu eta bultzatuko dituen egitasmo nagusiak?

EAJ-PNV. Sei hilabeteren ondoren zuengana gatoz berriro ere. Sei hilabete, zeinetan bata eta bestearen jarrera ikusita, hiru ondorio atera daitezkeen: Gobernu bideragarri bat eraikitzeko 4 alderdi politikok erakutsi duten gaitasun eza; politika zaharra eta ustezko berriaren arteko ezberdintasun eza, eta zuen iritzia eta konfidantza bost axola izatea.

Alderdikeriaz eta berekoi-keriaz, marra gorritz eta modu txarrez beteriko sei hilabete izan dira eta, tamalez, jarrera horrek abiapuntura eraman gaitu berriro ere. Eta Madril-en dena hankaz gora dagoen bitartean, orain sei hilabete guk egin genizuen proposamenak indarrean dirau: hara joan eta zuentzako lan egitea. Madrilgo Parlamentuan zein Senatuan zuek ordezkatu nahi zaituztegu, bertan jorratzen diren eta Euskadirekin zerikusia duten gaiak babesteko eta hobetzeko.

Horretarako ari gara. Hori da gure eginkizuna eta ilusioa. Eta horretarako, datorren ekainaren 26an zure babesa eskatu nahi dizugu, Euskadiren aho-tsa Madrileran eraman ahal izateko.

Gure programari dagokionean, besteak beste ondoren-eko ekintza arloak proposatzen ditugu:



Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan, Joseba Agirretxea da EAJ-PNV alderdiaren zerrendaburua Gipuzkoan.

EAJ-PNV

“Madrilgo Parlamentuan zein Senatuan zuek ordezkatu nahi zaituztegu, bertan jorratzen diren eta Euskadirekin zerikusia duten gaiak babesteko eta hobetzeko”

1. Autogobernua aurrera egitea eta Estatuarekiko harreman estatus politiko berria adostea. Euskadiren nazio aitortzan eta erabakitze eskubi-dearen erakundetzean oinarrituta.

2. Ekonomian eta aurrekontuetan suspertze ekonomikoarekin eta gizarte babesarekin bateragarria izango den egonkortasunaren aldeko apustua egitea.

3. Euskal Ekonomia Ituna eta Nafarroako Ekonomia Hi-

tzarmena defendatzea.

4. Bidezkoak eta duinak diren pentsioak defendatzea: kudeaketa Euskadira ekartzea. Langile autonomoen babesa hobetzea. Gizartean sortu diren arrisku berriei aurre egitea (diru sarrerarik gabeko familiak, langile txiroak, eta abar). Urratsak ematea errenta basikoko sistemarako bidean.

5. Eredu produktibo berria, politika industrialaren eta berrikuntzaren alde egingo duena. Horrek era berean exijitzen du lan harremanetarako marko propioa izatea, gure gizarte kohesio eta elkartasun baloreekin bat eginik.

6. Gure eskuduntza eskuliboa errespetatzea exijitzea. Ezin digute hezkuntza, osasun, administrazio publiko edo segurtasun eredurik inposatu. Espetxe politikan, gizarte segurantzaren eta beste hainbat

alorretan bete gabe dauden eskuduntzak geureganatzea. Gure kirol selekzioen aitortza.

7. Giza Eskubideen eta berdintasun politiken defentsa. Segurtasun alorrean salbuespen neurriekin amaitzea eta estatuko segurtasun taldeen presentzia murriztea, Ertzaintza polizia integral gisa hedatzea.

8. Euskal aireportu, trenbide eta portu sistemak finkatzea.

9. Ingurumenaren jasangarritasun eta iraunkortasuna sustatzea eta klimaren aldaketari aurre egitea (Kioto). Ekonomiaren lehiakortasunari lagunduko dion argindar merkea bermatzea. Argindarraren autokontsumoa eta energia berriztagarriak sustatzea.

10. Gardentasun eta balore kultura sustatzea.

PSE-EE: “Beste eredu sozial, ekonomiko eta fiskal batekin gobernatzea posible da”

NOAUA! Espainiako Gortee-tako ordezkariak aukeratu behar dira ekainaren 26ko hauteskundeetan. Zuen alderdiak ordezkariarik lortzen badu, zeintzuk izango dira defendatu eta bultzatuko dituen egitasmo nagusiak?

PSE-EE. Alderdi sozialistako kideok herritarren motibazioa eta ilusioa errekuperatu nahi dugu, PSE-EE (PSOE)-ren alde bozkatzuz Rajoyren PP alderdia menderatu dezagun. Era horretan, erakutsi dezagun posible dela beste eredu sozial, ekonomiko eta fiskal batekin gobernatzea, krisiari irtenbide justuago eta demokratikoago bat eman ahal izateko, sakrifizioen banaketa orekatuz.

Lau urte luzez elkarriketaren aurkakoa izan den eta politika antisozialak inposatu dituen gobernu bat pairatu eta gero, Euskadiko eta Gipuzkoako jendarteak lagun izango den gobernu bat behar du Madrilen. Pedro Sanchezen moduko presidente bat behar dugu, elkarriketaren bidea zabaldu dezagun, elkar ulertzea posible izan dadin, garrantzia handiko auzietan adostasunera iritsi gaitezenean, Euskadin eta Gipuzkoan arlo sozial eta politikoan kohesio maila handiagoak bermatu daitezenean.

Alderdi Sozialistako kideok Gipuzkoa plural, solidario, berritzaile eta elkarriketatzailen baten ahotsa ordezkatu nahi dugu Madrilgo Kongresuan. Horregatik, Gipuzkoako jendartearen interes orokorraren alde, neurri esanguratsu hauek defendatuko ditugu datozen lau urteetan: Enpresa handien inguruko behatokia sortzea bultzatuko dugu, enpresaren



Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan, Odon Elorza da PSE-EE alderdiaren zerrendaburua Gipuzkoan.

PSE-EE

“Zapateroren Gobernuak egin bezalaxe, enpresa txiki eta ertainen onerako izango diren proiektu berritzaileak eta lehiakorrak sustatu nahi ditugu, I+D+I delakoa bere egin dezaten”

beraren zabalkundeetan lagun-garri izan dadin eta, enpresen gatazkak, itxiera egoerak edo deslokalizazioak garaiak aurreikusteko.

Alderdien eta eragile sozialen artean adostutako lan erreforma bideratu, enpleguan ematen den prekarietatea amaitu dadin. Eta era berean, gutxieneko soldata interprofesionalaren igoera esanguratsu bat eman dadila.

Euskal autogobernuaren inguruan pendiente geratu diren transferentzien inguruan elkarriketa eta ne-

goziazioa bultzatuko dugu, Renferen aldiriko trenen kudeaketari dagokion transferentziari lehentasuna emanez, eta bien bitartean, tren-geltokietan eta geralekuetan hobekuntzak egin daitezenean.

Kontzertu Ekonomikoaren hitzarmen adostuaren defentsa eta errespetua. Kupoaren bost urtez behingo legea eguneratzeko, bi aldeen arteko konpromisoa adosteko ahalegina gure eginez.



Langabetuei dagokien prestazio-tasa handitzea, pentsioen sistema publikoa bermatu, euren erosketa ahalmena ziurtatu dadin, eta lehentasun izaeraz, baxuagoak diren pentsioak handitu, baita alargunsaria ere. Kontribuziozkoak ez diren pentsioen jarraikortasuna ziurtatu.

Bakea eta herritarren arteko elkarbizitza askea sendotu, Biktimen Memoria defendatuz

terrorismoaren deslegitimazioan aurrera eginez, ETaren disoluzioa lortuz, eta terrorismoaren garaiari buruzko errelato demokratikoa indartuz.

Pendiente geratu diren lizitazioak bultzatu eta Euskadin jada esleituta dauden abiadura handiko trenen inguruko obrak amaitu.

Hauek dira Gipuzkoako diputatu sozialistek bere egin dituzten proposamenetako batzuk. Gardentasunetik, gertutasunetik, zintzotasunetik, Eusko Jaurlaritza eta Madrilgo Gobernuaren artean konplizitateak eta akordioak bilatu, erronkei hobeto heldu eta elkarlanean garapen ekonomikoari buruzko egitasmoak martxan jarri ahal izateko. Euskadi eta Espainiaren arteko akordioa eta elkarbizitza hobea ziurtatzeko estrategia. Gipuzkoako lurraldearen kohesio sozialaren alde.



Senitarteko ekitaldiak (Ezkontzak, bataioak...)



TALASOTERAPIA ETA HOTELA DEBAKO AISIAN...

- **Itsas ura modu terapeutikoan erabilia.**
Bere ezaugarriak, lokatza, algak eta gatzak diren elementuei batua, gaitz ezberdinak saihesteko balio dute. Abantailak oso handiak dira, analgesiko ondorioa nabarmenduz, min orokorra eta gorputzaren zonalde zehatzetan mina murrizteagatik.
- **HOTELAREKIN ESKEINTZA BEREZIAK:**
Asteburuko edo gau bateko eskeintzak (gaua, pentsio erdia, masajea...), talaso +**MARISKADA**+ gaua ...



Markiegi Kalea 6 DEBA (Gipuzkoa) 943 60 80 52 deba@aisiahoteles.com

Udal mozioa, Ingemarreko langileen alde

Datorren asteartean izango da ekaineko osoko bilkura; hilaren 28an. Eguneko gai zerrendan, jada bi aste pasatxoaz greba mugagabearen diren Ingemarreko langileen egoera hizpide izango dute. Udal gobernu taldeak mozioa aurkeztuko du, eztabai-datu eta bozkatua izan dadin.

Mozioaren zirriborroa, aurreko ostiralean aurkeztu zien Xabier Arregi alkateak. Udal ordezkariak egun osoz lantegi atarian biltzen diren langileekin bildu ziren. Haien ekarpenak jasotzen aritu ziren, babesa eta elkartasuna adierazteaz gain. Mozioaren bidez, langileen alde egin eta irtenbide bat bilatzeko Udalaren esku dagoen guztia egiteko prestutasuna adieraziko da.



Mozioaren bidez, langileen alde egin eta irtenbide bat bilatzeko Udalaren esku dagoen guztia egiteko prestutasuna adieraziko da.

noqua euskararen aterpe

Bazkideok egiten dugu posible

Astekaria, noqua.eus Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...

BAZKIDE EGIN ZAITEZ!
eta opari eder hau eskuratu!



Hiri Hondakinen Kudeaketa Planari alegazioak aurkezteko deia

Gipuzkoako Foru Aldundiak GHHKPO (Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketa Plan Orokorra 2017-2030) aurkeztu du, “non hondakinen kudeaketa erdiz-erdi baldintzatuko lukeen errauste planta bat aurreikusten den”, berri eman dute Zubieta Lantzenetik. Alegazio epean da orain, eta herritarrak erreklamazioak aurkeztera deitzen dituzte.

“Ahalik eta alegazio gehien aurkeztea komeni da, beraz, zabaldu mezu hau zuen inguruko guztien artean”, adierazi dute zubietarrek.

Epea, amaitzear

Ekainaren 24ra arteko epea dago. Inprimakiak eskuratu, zuen datu pertsonalekin osatu



“Ahalik eta alegazio gehien aurkeztea komeni da, beraz, zabaldu mezu hau zuen inguruko guztien artean”, horra Zubietatik egin duten deia.

eta ostiral hau baino lehen bi-deotatik erregistratu:

-Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erregistro Bulego Orokorrean (Donostiako Gipuzkoa plazan), 08:30-14:00 artean.

-Ekainaren 23an, 20:00-22:00

artean, Zubietako plazan San Joanetako ospakizunera eramanda.

-Ekainaren 23a baino lehen, Zubietako Herri Batzarreko postontzian sartuta (Alamandegi ondoan).

Aisialdiko ikastaroak egin dituztenentzako laguntza

Euskarako udal diru-laguntze-kin batera, aisialdikoak eskatzeko epea ere astlehenean, ekainaren 27an zabalduko da. Bi astez tramitatu ahalko dira eskabideak udal erregistroan, uztailaren 8ra arte. 2015-16 ikasturtean aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak euskaraz egin dituztenentzat zuzendua dago deialdi hau.

Euskarako laguntzen kasuan bezala, 16 urtetik gorako usurbildarrek aurkeztu ahalko dituzte eskabideak, Usurbilen erroldatuak daudenek. Ezinbestekoa izango da ikastaroa Eusko Jaurlaritzak homologatua izatea, eta euskaraz egin izana. Eta “ikastaroaren alderdi teorikoa gaintzea eta araututako gehieneko epearen ba-

rruan titulua lortzea”.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: eskaria bera, NAN fotokopia, matrikularen ordain-agiria, ikastaroan matrikulatu izanaren agiria edota atal teorikoa gaintu izanaren Aisialdi Eskolaren ziurtagiria.

Kasu honetan, aurreko urteen antzera, matrikularen % 50 itzuliko da.

Lasarte-Usurbil Institutuan matrikulatzeko garaia

Matrikula uztailaren 6ra arte bideratzeko epea egongo da Institutuko idazkaritzan. Goizez, 09:00-14:30 artean. Informazio gehiagorako: 943 372 852/943 372 277 instilarte.hezkuntza.net lasarte-bhi@instilarte.net

Matrikulazioa, Helduen Hezkuntza Iraunkorrean

Ekainaren 30era arte zabalik egongo da hezkuntza arautuko ikastaroetan, atzerritarrentzako gaztelania saioetan eta Zikloetarako sarbide probak prestatzeko programetan matrikulatzeko epea. Izen emateko EPA-k Lasarten duen egoitzara joan. Bertan jasoko duzue informazio gehiago: Beheko Kale Bidea 1, Lasarte-Oria 943 376 443 info@epalarte.es epalarte.es

KzGunea, datozen ikastaroak

■ Ekainak 30, 09:00-11:00: Skype: Munduko edozein lekutara doan deitzeko aplikazioa.
■ Uztailak 1-12, 16:00-18:00: Komunikatu zaitetz Sare Soziales bitartez. Informazio gehiagorako: 943 023 684 tutor.usurbil@kzgunea.net

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA

Kima
MASAJE LEKUA
· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97


Usurbil F.T., 40. urtemugako denboraldia prestatzen

Indar berrituta, ekimen eta talde gehiagorekin heldu nahi du betetzear duen 40. urtemugara Usurbil F.T.-k. 2016-17 denboraldi berezi honetarako prestaketa lanak abiatu dituzte. Lehenago, larunbat honetan denboraldi hau borobiltzeko ekimenak antolatu dituzte. Urteurrenaren harira ere, hitzordu ezberdinak prestatu asmo dituzte. Antolaketa lanetan lagundu edo oro har klubean parte hartu nahi duenak, idatzi dezala mezu bat futusurbil@yahoo.es helbidera.

Gauza bera, helbide horretara idatzi behar dute, ikasturte berrian jokalaria moduan futboleant aritu nahi dutenek ere. Taldeak osatzen dabilta. Une honetan, errendimenduko alebinetarako mutil talde batek izena emana du, “baina kide gehiago beharko dira taldea osatzeko. Beste deialdi bat egingo da irailean, ia taldea osatzen den”, adierazi digute Usurbil F.T.-tik.

Infantiletan, hiru talde

Honez gain, infantiletan 3 talde arituko dira; bat mutilena, beste biak neskenak. Kadete, ju-



Antolaketa lanetan lagundu edo oro har klubean parte hartu nahi duenak, idatzi dezala mezu bat futusurbil@yahoo.es helbidera.

NESKEI DEIA

“Futboleant aritu nahi duzuenok, gerturatu datorren asteazkenean Haranen deitu duten bilerara”

benil eta erregional mailan ere mutilen talde bana izango du Usurbil F.T.-k. Bereziki ordea, arreta nesken taldeetan jarri nahi dute. Kontu berria da futbol taldekoentzat, infantiletan bi talde osatzea, “pozgarria. Ia pixkanaka maila ezberdinetan taldeen katea osatu ahal dugun”. Ez ahaztu gainera, infantil neskek Gipuzkoako Txapelketa irabazi berriak dira.

Garai bateko nesken mu-

gimendua berreskuratu nahi dute. Gogoan izan, ibilbide luzeko nesken taldea izan dutela futbol taldekoek.

“Pare bat urtez talde hori bakarrik aritu zen klubean, Usurbil F.T.ren oinarria izan ziren”, nabarmendu dute. Nesken taldeari esker egin zuten aurrera. Orain berriz nahiko lukete nesken futbola sustatu eta indartzea. Horretarako, futboleant aritu nahi duzuenok, gerturatu datorren asteazkenean Haranen deitu duten bilerara. Aurreko astean egin zuten entrenamendu saioan, jada neska batzuk gerturatu ziren. Gehiago agertuz gero, izen emate kopurua araberak, taldea lehiatzen aritzeko irtenbide desberdinak proposatuko dira.

Formakuntza sustatzen

Jokalarien heziketa lantzen segi nahi du Usurbil F.T.-k. Entrenatzaile eta laguntzaileen formakuntzan ere sakondu nahi dute, aurreko larunbatean egin zuten saioan bezala. “Entrenatzaile titulua duten usurbildarrak ekarri genituen. Begirale eta entrenatzaile dezente parte hartu zuten”, adierazi digute futbol taldeetik.

Datozen deialdiak

Ekainak 25, larunbata

- 11:00 Futbol Eskola eta errendimendiko alebinekin jolasak Oiardo Kiroldegian.
- Eguerdian, bazkaria Aska-tasuna plazan.
- Gauean, Atxega Jauregian afaria Usurbil F.T.-ko kideekin.

Ekainak 29, asteazkena

- 18:00 Datorren denboraldian nesken taldeak osatzeko bilera Haranen.

Iraila

- Usurbil Cup txapelketa hilabete hasieratik irailaren 24ra. Azken egun honetan, finala eta sariketa frontoian.
- Hilabete amaieran edo urria hasieran, futbol taldeen denboraldi hasiera.
- 40. urtemugako ekimenak.

Antolatzailea: Usurbil F.T.

Usurbil Cup: “Araudi bat finkatuko dugu eta zorrotz beteko da”

Udaleri honetan haur eta gazte gehien biltzen dituen ekimenetako bat izango da Usurbil Cup. Aurtengo izen emate datuek ere errealitate bera islatzen dute. 350-400 haur eta gaztetxok parte hartuko dute, irailean zehar ospatuko den

txapelketan. 8 multzotan banaturiko 34 taldeek parte hartuko dute, maila hauetan: minibenjaminetan, benjamin, alebin eta infantil mailan. Minibenjaminekin abiatuko duten txapelketako neurketa gehienak larunbatean eta Haranen antolatzen ahale-

ginduko direla berri eman du Usurbil F.T.-k. Nahiz talde kopurua ikusita, partida batzuk astetartean ere jokatu beharko diren. Finala, ohi bezala frontoian ospatu asmo dute, irailaren 24an.

Egutegi kontuez gain, bereziki araudian eta jarreran

eragin nahi dute aurten ere. “Araudi bat finkatuko dugu eta zorrotz beteko da”, ohar-tarazi dute. Beste behin, gogorazten dutenez, txapelketa honetako xede nagusia haur eta gaztetxoek parte hartzea sustatzea eta ondo pasatzeko kirol ekimena izatea da.

Beterano usurbildarren topaketa



Usurbil FT-n jokatu izan duenak, beteranoen taldera batu nahi badu, deitu dezala 658 709 246 telefono zenbakira.

Zaletasunari bide ematen segitzen diote, lehia ofiziala alboratu ostean ere. Usurbil F.T.-ko futbolari helduenak, euren

kabuz entrenatzen aritzen dira eta beste udalerrietako taldeekin lagun arteko partidak jokatzen dituzte aldiro. Larunbatean zarautzarrak

hartu zituzten Haranen. Usurbil F.T.-n jokatu izan duenak, beteranoen taldera batu nahi badu, deitu dezala 658 709 246 telefono zenbakira.

Amador Granados, Rioko Paraolimpiar Jokoetarako sailkatua

Usurbilgo txirrindularia, beraz, Rio de Janeiro arituko da iraillean. Zuzenak taldeko kideak aurreko astean lortu zuen jokoetara joateko txartela. Atenasen eta Pekinen lehiatu ondoren, hirugarren jokoak izango dira Amadorrentzat. 2014an, munduko txapeldun izan zen taldekako abiadura olinpikoan.



Duela bi urte, abiadura olinpikoan munduko txapeldun izan zen.

Larunbatean, Usurbil K.E.

Eguna

Ospakizun eguna dute Usurbil K.E.-koek datorren larunbat hau, ekainaren 25a. Egunean zehar elkarte kideen arteko neurketak jokatuko dituzte. Gauean herri afaritarako bilduko dira Askatasuna plazan. Sariak ere banatuko dituzte. Txartelak asteazken honetara arte izan dituzte salgai, Bordatxon eta Aitzagan.

Igandean, Pala Txapelketako

partidak

Ekainak 26 igandea

Usurbilen, 17:00etan

- Kirol egokituen pala partida.
- Emakumezko pala partida.
- Usurbilgo gizonetzkoen pala txapelketako finala.

Kirol eskaintza gazteentzat

8-13 urte artekoek uztaillean kirolaz gozatzeko eskaintza zabala aurkituko dute Kiroldegian antolatu dituzten txokoei esker. Argibide gehiago:

943 372 498

kirola@usurbil.eus

buruntzaldea.eus

Facebook: Oiardo Kiroldegia

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus



Goardiako farmaziak

Osteguna 23	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Ostirala 24	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola 9. Lasarte
Larunbata 25	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea 26	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Astelehena 27	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Asteartea 28	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Asteazkena 29	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ekainak 23 - uztailak 03

Osteguna 30	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala 01	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Larunbata 02	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Igandea 03	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA YURREBASO, MAITANE
Etxeberri auzoa 1. Florida auzoa, Hernani
943 55 77 38 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda ekaina

24 ostirala

- San Joanak Kalezarren (ikus 9. or).
- Azken ostiraleko elkarretaratzea
20:00etan Mikel Laboa plazan.

25 larunbata

- San Joanak Kalezarren: Oilasko Biltzaileen Eguna (ikus 9. or).
- Usurbil FT-ren eguna (ikus 22. or).
- Usurbil KE-ren Eguna (ikus 23. or).

26 igandea

- San Joanak Kalezarren: Umeen Eguna (ikus 9. or).
- Espainiako Gorteetarako hauteskundeak. Bozka emateko ordutegia: 09:00-20:00.

Uztailaren 10ean, Aizkorri eta Arantzazura joateko aukera

Uztailaren 10erako iragarri dute Andatza M.K.T.-k hurrengo txangoa. "Otzaurtera autobusez abiatuko gara, Aizkorri mendia igo eta Arantzazura joateko", antolatzaileek berri eman dutenez. Irteera honek, urte luzez Usurbilgo jaien ondoren antolatu izan duten Pirinioetako asteburupasa ordezkatu du. Bi eguneko txango hau, irailera atzeratu dute aurten.

Gogoan izan, udaberrian bideratu zuten izen ematea. Plazak beteta daude jada, antolatzaileek ohartarazi dutenez. Izena emana dutenak irailaren 9tik 11ra Ordesara joango dira, "Monte Perdido eta Tozal de Mallo egiteko asmoz. Gorizeko aterpean eta Torlako Refugio Lucien Brieten ostatua hartuko dugu".

Izen ematea, uztailaren 6ra arte

- Eguna: uztailak 10, igandea.
- Abiatzeko hitzordua: 07:00etan Oiardo Kiroldigitik eta autobusez.
- Ibilbidea: 18 km.
- Izen ematea: 10 euroko ordainketa egin uztailaren 6a baino lehen, Andatza M.K.T.-ren kontu zenbakiotako batean: Rural Kutxa: 30080259163005430321
Kutxabank: 20955069071068489805
-Plaza mugatuak.



Andatzak antolatu duen irteerarako, uztailaren 6a baino lehen eman behar da izena.

-Otordua, ibilbidea amaitutakoan egingo dugu.

-Janaria norberak eraman behar du.

-Edaria Andatza M.K.T.-k eramango du.

-Irteeran parte hartzeko ezinbestekoa izango da mendiko federatua izan eta aseguru txartela indarrean izatea. "Federatu gabe dagoenari tramitea egingo diogu, hala nahi badu. Horretarako gure web orrian aurkitzen da egin beharrekoa, edo gurekin harremanetan jarri andatza@hotmail.com helbidean.

- Informazio gehiago:
www.andatza.com

Antolatzailea: Andatza M.K.T.

Datozenak

Umeen Eguneko ginkanan izena emateko azken eguna: ekainak 24

Aurtengoan, uztailaren 1ean ospatuko dute umeen egun handia. "Ginkanan izena eman ez duten haurrek (LH-ko ikasleei bideratua) aukera izango dute bertan parte hartzeko ekainaren 24a arte, azken egun hau barne. Horretarako eskaera bidali beharko dute norbere izen abizenak eta ikasten ari den maila azalduz. Eskaera bidali helbide honetara: santixabelak.umeen.eguna@gmail.com", ohartarazi dute antolatzaileek.

Ikimilikiliklik erakusketa uztailaren 3ra arte Potxoenean ikusgai

"Ikimilikiliklik, JA Artzeren unibertsoa" izeneko erakusketa uztailaren 3ra bitarte izango da ikusgai.

- Ordutegia: goizez astelehenetik igandera: 12:00-14:00. Arratsaldeaz asteazkenetik larunbatera: 18:00-20:00.
- Sarrera: doan.
- Antolatzaileak: Jexux Artze K.E. eta Usurbilgo Udala.

ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
629 272 859 eta 943 36 13 80
BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

ELORZA
O BRAK ETA
ER REFORMAK S. L.
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 €^{tik}

AZKEN
ETXEBIZITZAK!

12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



musika, jan-edana, ekitaldia

KANPAINAren AMAIERA FESTA

DONOSTIA 20:30tan

2016.06.24 CERVANTES PLAZAn

Aukerak zabaltzera goaz

ehbildu



Marian Beldarrainpeltza



Arnaldo Orp



Oihan Meluso

Udarregi

IKASTOLA



On do paga sant☆xabelak!!!

☆xabele

943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika Ibilbidea. USURBIL

www.udarregi.eus